

10.ERANSKINAK

10.1. Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzaren hizkuntza gaitasuna

Beheko taulan, Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzari dagokion kompetentzia komunikatiboa, kasu honetan hizkuntza gaitasuna, zehazten da.

ZIKLOA	HIZKUNTZA GAITASUNA
Lehenengo zikloa	<p>-Egunerokotasunean aurkezten diren egoeren (gonbidapenak, ospakizunak, notak eta abisuak esaterako) informazio zehatzaren ulerpena.</p> <p>-Ikasleen esperientziatik hurbil aurkezten diren gertaeren (batez ere albisteak) inguruko informazio orokorraren ulerpena.</p> <p>-Esperientziari lotuta edota helburu didaktiko gisa erabiltzen diren testuen (testu liburuak, azalpenak, argibideak, deskripzioak eta liburuxkak) informazioaren ulerpena.</p> <p>-Grafikoek, eskemek eta ilustrazioek eskaintzen duten datu errazen interpretazioa.</p> <p>-Datu zehatzen ulerkuntza, zenbait zeregin bete ahal izateko.</p>
Bigarren zikloa	<p>-Egunerokotasunean aurkezten diren egoeren (eskolarekin bat egiten duten egoerak, klaseko arauak eta jokoaren arauak esaterako) informazio aipagarriaren ulerpena.</p> <p>-Ikasleen esperientziatik hurbil aurkezten diren gertaeren (albisteak, elkarrizketak eta zuzendariarentzako gutunak) inguruko informazio orokorraren ulerpena (Haurrentzako web orrialdeak barne).</p> <p>-Ikasteko baita informatzeko edota helburu didaktiko gisa erabiltzen diren testuen (testu liburuak, ziklorako proposak diren liburu kontsultak, azalpenak, argibideak, deskripzioak eta liburuxkak) informazio aipagarriaren ulerpena.</p> <p>-Grafikoek, eskemek eta ilustrazioek eskaintzen duten datuen interpretazioa.</p> <p>-Ideien azterketa: ideia nagusiak, elementu faltsuak, absurdoak, gaia.</p>

Hirugarren zikloa	<p>-Egunerokotasunean eta sozietatearekin erlazioa aurkezten diren egoeren (korrespondentzia, arauak, ariketen programa, deialdiak, lan planak edota arautegiak) informazio zehatzaren ulerpena.</p> <p>-Ikasleen esperientziatik hurbil aurkezten diren gertaeren (albisteak, elkarrizketak eta zuzendariarentzako gutunak) inguruko informazio orokorraren ulerpena, ondoren informazio zehatzaren kokalekua zehazteko (Haur eta gazteentzako web orrialdeak barne).</p> <p>-Ikasteko baita informatzeko edota helburu didaktiko gisa erabiltzen diren paperezko testuen eta testu digitalen (testu liburuak, kontsultak, informazio-publizitate liburuxkak, prentsa, programak edota pasarte literarioak) informazio aipagarriaren ulerpena.</p> <p>-Grafikoek, eskemek eta ilustrazioek eskaintzen duten datuen interpretazioa.</p> <p>-Ideien azterketa: gaia, azpi-gaiak, ideia nagusiak eta azpi ideiak, elementu faltsuak, absurdoak, informazio aipagarria eta ez aipagarria...</p>
--------------------------	---